


Euskal AEko ospitaleetan 2010ean sartutako pertsonen %42,9k 65 urte eta gehiago zituen

Katarata eta bihotz-gutxiegitasuna izan ziren ospitalean sartzeko arrazoi nagusiak

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ospitale publiko eta pribatuek ospitalera sartutako pazienteen 318.194 alta izan zituzten 2010ean (2009an baino % 0,5 gehiago). Alten % 74 ospitale publikoetakoa izan zen eta % 26 pribatuetakoa.

65 urte eta gehiagoko pertsonen % 42,9 batez ere nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak (katarata) eta zirkulazio-sistemakoak (bihotz-gutxiegitasuna) zirela kausa ospitaleratu ziren; horiek horrela, ospitaleratze gehien eragileak gaixotasun mota horiek biak izan ziren.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko talde ohikoenei jarraiki sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Euskal Ae ko ospitaleetako erikortasu estatistika

Zehazki, nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak ospitaleratze guztien % 12,1 izan ziren, eta zirkulazio-sistemakoak % 11,5. Hirugarren tokian digestio-aparatuko gaixotasunak egon ziren (%11,1) eta laugarren eta bosgarren tokian tumoreak eta gaixotasun osteomuskularrak (% 9,1 eta % 8,6, hurrenez hurren).

Ospitaleetako batez besteko egonaldia 6,1 egunekoa izan zen 2010ean, aurreko urtekoa baino % 3,2 gutxiago. Egonaldirik luzeenak, buruko gorabeheretz beste, gaixotasun perinatalek eragindakoak izan ziren (12,3 egun); gaixotasun infekziosoak eta tumoreak egon ziren ondoren (9,1 eta 8,4 egun, hurrenez hurren).

Ospitalera sartutako pertsona guztien %51,7 emakumezkoak izan ziren, gizonak baino gehiago ospitaleratu zirenak haurdunaldien eta erditzeen ondorioz. 76 urtekoa izan zen ospitaleratzeke adinik arruntena.

Gizonetan zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeke arrazoi nagusiak (%13,8), gaixoaren adina aurrera egin ahala maizago; gaixotasun talde honetan arteroesklerosi koronarioa eta bihotz-gutxiegitasuna ugarietak izan ziren. Jarraian digestio-aparatukoak egon ziren (% 13,3), iztai-etena oroz gain, eta nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunak (%10,6), hauen artean katarata argi eta garbi nagusi.

Haurdunaldien ondorioz egindakoak dira emakumezkoetan ospitaleratze gehien eragileak (% 15,8); salbuespen horrekin, sarrien gertatzen diren hiru gaixotasun-taldeak bat datoz emakumezkoetan eta gizonezkoetan, hurrenkera bestelakoa bada ere.

Katarata 65 urte eta gehiagoko emakumeetan nahiko sarri gertatzen den gaixotasuna denez gero (12.613 alta), nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixotasunen taldea emakumeak ospitaleratzeke bigarren eragile nagusia izan zen (% 13,4). Hirugarren tokian zirkulazio-sistemakoak egon ziren (% 9,4), euren artean barizeak eta bihotz-gutxiegitasuna ugarietak. Laugarren postua digestio-aparatuko gaixotasunek hartu zuten (% 9), sarrien gertatzen direnen artean besikulako harria zegoela.

Beste gaixotasun-talde ohiko batzuk (20.000 alta baino gehiago) tumoreak, gaixotasun osteomuskularrak eta arnas aparatuenak izan ziren. Tumoreen kokalekurik ohikoenak prostata, maskuria, bularra eta umetokia izan ziren. Tumoreak heriotzaren kausa arruntena dira oraindik ere Euskal AEko ospitaleetan (% 24,6); heriotzaren kausa gisa, trakeako minbizia, bronkioetakoa eta biriketakoa dira ohikoenak. Minbiziak eragindako batez besteko heriotza-adina 67 urtekoa izan zen.

Zahartzaroarekin zerikusia duten gaixotasun osteomuskularrak, osteoartrosia besteak beste, arnas-aparatuko gaixotasunen aurretik egon ziren; azken hauek % 8,3 egin zuten behera 2009ko datuekin alderatuta, gripe eta pneumonia-kasu gutxiago gertatu ziren eta.

Ospitaleko alta jasotzen duten pazienteak, diagnostiko talde ohikoenei jarraiki adinaren arabera

Adin-talde handiak	Altak guztira (*) %	Adin-taldeak			
		0-14	15-44	45-64	65 eta gehiago
Total	100	16.245	80.762	84.776	136.411
Tumoreak	9,1	422	3.884	10.954	13.795
Nerbio-sistema eta zentzumen organoak	12,1	1.406	3.379	7.957	25.643
Zirkulazio-aparatua	11,5	105	3.108	10.247	23.235
Arnas aparatua	8,1	3.490	4.553	4.940	12.898
Digestio-aparatua	11,1	1.751	8.009	10.975	14.586
Aparatu genitourinarioa	5,9	761	5.363	5.293	7.218
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	8,1	7	25.791	126	-
Osteomuskularrak	8,6	399	6.529	10.823	9.661
Traumatismoak	7,2	1.095	6.104	6.226	9.624

(*) alta guztien %

Iturria: Eustat. Euskal Aeko ospitaleetako erikortasu estatistika

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Marta de la Torre Fernández

Tel.: +34-945-01 75 48 Faxa: +34-945-01 75 01

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Ospitaleetako erikortasunaren estatistikaren datu-basea